

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Internet aprobetxatuta:

- ✓ Ba al dakizu noiz den eskola-jazarpenaren aurkako eguna? Ba al dakizu nola definitzen den *bullying*-a? Ba al dakizu nola egin diezaiokegun aurre arazo larri honi? [Adi bullying-arekin!](#) izeneko sekuentzia honetan, galdera horientzako guztientzako erantzuna topatuko duzu, baita, bide batez, nominalizazioa lantzeko aukera ere. **Sartu** IKASBIL atarian, eta **egin** sekuentzia.
- ✓ **Geratu** ikaskide batekin, eta **banatu** zuen artean **bi dokumentu hauek (bata, bideoa; bestea, audioa)**. Ikus edo entzun itzazue, nork berea, egin ezazue laburpentxoia, eta **azal** iezaiozue elkarri.
 1. [Bullying-ari aurre egiteko programa aitzindaria](#) (Euskadi Irratia). *Berdinen arteko tutoretza* deritzon programa berritzaileari esker, ikasleek eurek egingo diote aurre eskola jazarpenari.
 2. [Kataluniako institutu batean ikasleak prestatzen ari dira ziberbullying-a antzemateko](#) (EiTB). Kataluniako institutu batean *ziberbitartekariak* deitu dituzten ikasleak prestatzen hasi dira. Ikasle horien helburua da erasoren bat jasaten duten gelakideei laguntzea.
- ✓ **Geratu**, oraingoan, beste ikaskide batekin 😊, eta **banatu** zuen artean **bi berri labur hauek**. **Irakurri**, nork berea, eta **azal** iezaiozue elkarri.
 1. [Leioako Askartza ikastetxeak kalte-ordaina eman beharko dio ikasle bati](#).
 2. [Gasteizko ikastetxe bat zigortu dute, ikasle batek tratu txarrak jasan ostean](#).
- ✓ **Ikusi** Arantza Ibarra eta Alfonso Arandia zuzendarien *Zigortzaileak* izeneko filma. Filmak arazoa modu umoretsu eta entretenigarri batean lantzen du: eskola-jazarpena jasaten duten ume batzuek talde sekretu bat osatuko dute, eta haiekin sartzen diren umeen kontrako ekintzak antolatzen hasiko dira. Ondoren, **idatzi** testu laburra ikusitakoaren laburpena egiteko eta filmak sortu dizun iritzia azaltzeko. Azkenik, **igo** testua euskaltegiaren blogera edo/eta **konpartitu** ikaskide batekin.
- ✓ Ezagutzen al duzu *Bullied* kanta? Ba al dakizu zer den kontzertu didaktiko bat? Ba al duzu *Zentsura At* izeneko jaialdiaren berri? Entzun al duzu inoiz Maider Legarreta izena? Uf! Zenbat galdera, ezta? **Irakurri Berria** egunkariko [elkarrizketa hau](#). Behin irakurrita, **pentsatu** zein galdera egingo zeniokeen zuk Maider Legarretari, **konpartitu** ikaskideekin, eta **galdetu** haiei ea zein galdera egingo lioketen Maiderri.